

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

Urte amaierako brindis baikorra

Abenduaren azken egunak iristen direnean ohitura da urteari errepassoa egitea. Ondorengo beraz, errepasso baikorra izatea espero dut. Eredu pertsonalean urte ona izan den arren, munduari begiratzuz gero nire erantzuna agian ez litzateke horren baikorra izanena: Trumpen garaipena, eskuineko alderdien gorakada, Siriaren egoera, etorkinen krisia, emakumearen kontrako indarkeriaren iraunkortasuna... Baikortasunaren aldeko argudioen bila nabil, benetan, baina zaila egiten zait. Hurrengo urtera begira hiperkapitalismoaren sendotzean pentsatzeak mahatsak ez-tarrian geldiaraziko dizkidala uste dut.

Gure oinordekoen ikuspuntuak jakin-mina pizten dio nire barne historialariari; nola baloratuko dute 3000. urteko historialariek gure garai hau? Erromatar Inperioaren erorialdiaren parean kokatuko dute? Egia esateko, horrela izatea gus-tatuko litzaidake, gerra, krisia eta hainbeste heriotza zentzugabe sistemaren gaitortasunaren zantzu lirate-keelako. Mende hasierako iraultzaren gakoak aztertuko dituztela da nire ametsa, "Gizarte neoliberalaren erorialdia" titulatuko dituztela XXI. mendeko hasiera azaltzen duten liburuak, edo "Gizarte patriarkalaren amaiera". Baina pena dut ez ote gauden gizarte honen sendotze garaian erorialdian baino.

KRISIALDIA?

Krisi batean geundela saldu ziguten 2008. urtean, sistemaren hausturaren aurrean. Gezur hutsa, noski, argi baitago gehien zutenek gehiago irabazi dutela egoera honekin. Krisia behintzat ez da beraientzat izan. "Krisia" hitzak jatorri grekoa du eta pertsona, erakunde, gizarte edo sistema baten funtzionamendu normalarekin bat egiten ez duen egoerari deritzo, baita edonolako egoera larri ere. Munduaren zati ahulena-entzat larria izan da bai, baina ez nuke anormaltzat hartuko; kapitalismoaren normaltasunaren parame-troetan jarraitzen dugula esanen nuke. Beraz, senti-

tzen dut, urte amaierari azken brindisa egiteko kopa hartzen dudana bitartean diskurtso ezkorrekin jarraitzen dut, eta hau begirada baikorra izanena zela zin egin diot nire buruari, baita zuei ere.

AUKERA GARAIA

Baikorra naiz, bai, "krisi" hitzak baduelako ere beste esanahi bat: aukera garaia. Historian zehar sistema baten krisiaren ondoren, batzuetan aurretik, iraultzak piztu izan dira. Baina agian kapitalismoarekin amaitu-ko duen iraultza definitiboa ez da etorri. Antzinako Erregimenaren kontrako iraultza (1789), langileen iraultza Errusian (1917)... ez dira behin betikoak izan. Zertxobait falta izan zaigu eta agian 2017. urteak zertxobait hori ekarriko digu. Behin baino gehiagotan

Silvia Federici idazle feministaren hitzetan, patriarkatua eta kapitalismoa eskutik datoz, ezin dugu bata menderatu bestea menderatu gabe. Agian, falta zitzaigun zertxobait hori ikuspuntu feminista izan da

esan dut emakumeok egiten dugun erreproduzio lanari eta soldatarik gabe egiten dugun zaintza lanari esker egiten duela aurrera sistema kapitalistak. Silvia Federici idazle feministaren hitzetan, patriarkatua eta kapitalismoa eskutik datoz, ezin dugu bata menderatu bestea menderatu gabe. Agian, falta zitzaigun zertxobait hori ikuspuntu feminista izan da. "Iraultza feminista izanena da edo ez da izanena" defendatzen duen leloarekin bat nator.

XXI. mendea aztertuko duten Historia liburuetan hiperkapitalismoaren alde egin zuen belaunaldia bezala agertu nahi ez badugu, eman zaigun aukera hau aprobetxa dezagun. Gure ondorengoek mende hasierako krisia aztertuko dute eta niri tituluak "Iraultza feministaren mendea" agertzea gustatuko litzaidake. •